



# Burgiko sarrailagilea agote madarikatua

URKO APAOLAZA

Nafarroan, Erronkariko bailararen bihotzean bada Burgi izeneko herri bat. Han bizi izan zen, duela hainbat mende, arraza “madarikatu” bat: agoteak. Burgiko sarrailagilearen bizitza ez da bazterturiko agote baten inguruko ipuina. Artxiboetan eta liburu espezializatueta jasotako historia erreala da. Johan Acos izeneko hezur haragizko gizaseme batek bere herriko elizan eserleku duina izateko egin zuen borrokaren kontakizuna.

URKO APAOLAZA

**EZKA IBAIAREN** uretan almadiaren egur karraskak beldurra ematen du, mila pusketa-tan hautsiko dela dirudi. Egurra izan da Erronkaribarreko sostengu nagusietako bat eta almadiak horren erakusgarri dira. Kontu zaharrek diote garai bateko almadiagileak agoteak zirela, ez dago zehazki jakiterik, baina baliteke. Agoteak ezin omen ziren laborantzan edo ganaduekin lanean aritu, jangai horiek kutsatuko zituzten beldur ziren ingurukoak. Horregatik, beste ofizio batzuk bilatu behar izan zituzten: ikazkin, musikari, zurgin, sarrailagile...

Burgin bazegoen, aspaldi, ohitura bitxi bat. Santa Ageda egunean, herriko familia guztiek beren etxeko giltzak zaku batean sar-

tzen zituzten; gero, binaka ateratzen zituzten giltzak zakutik, eta giltza horien jabeek elkarrekin bazkaldu eta pasa behar zuten eguna –“etsaiturik daudenak adiskidetu daitezten”, dio garai haietako agindu batek–. Baina burnizko giltza handi horiek mimoz eta tentuz egiten zituen artisauak ez zuen jolas horretan parte hartzerik. Bera zen Johan Acos, Burgiko sarrailagilea, eta agotea.

**Elizako eserlekua kendu zioten egun beltza**  
XVII. mendeaz ari gara, baina agoteen berri lehenago ere badago Euskal Herrian, kontu hau gertatu baino askoz lehenago. Batzuen ustez godoen oinordekoak ziren, beste batzuek diote Erdi Aroan etorritako kataro-

ak zirela agoteen arbasoak, esan izan da sarrazenoak zirela, ijitoak, Frantziako legerardunen (lepra) ospitaletatik etorritako gaitxoak, konbertsoak... Kontuak kontu, gaur egun ez dago jakiterik, oraindik behintzat, zein ziren eta nondik etorri ziren agote izeneko gizatalde horiek. Baina mende askoan jasan zuten bazterketaren berri badugu.

Johan Acos Burgiko zubi ondoko etxe batean bizi zen, herritik aparte. Herri kaskoan etxe bat erosi zuenean, bizilagunek eragotzi nahi izan zuten sarrailagilea eta bere familia bertara joatea, baina azkenean utzi egin zioten; bere ofizioak salbatu zuen, lanbide “duina” zelako, antza. Baina besterik ez zioten barkatu. 1610. urteko igande batez, herriko San Pedro elizara sartu zenean, konturatu zen bere eserlekua atzealdeko bazter batera eramán zutela, koroaren azpira. Familia bakoitzak meza orduan zuen eserlekua garrantzitsua zen oso, norberaren ohore eta boterea irudikatzen modu bat baitzen hura. Horregatik, zenbait herritan ohikoa zen agoteak azkeneko postuetan jartzea “emakumeen atzean”. Burgiarrek, ohitura hartaz baliatuta, sarrailagilea umiliatzeko aukera proposa ikusi zuten eta azkeneko lekura bidali zuten. Hor hasi zen Erronkariko agotearen kalbarioa.

**“Kalitate eta etorrera ezberdinekoak”**

Acostarrek ez zuten sekula beren agote jatorria aitortu, eta herriko beste zenbait familia agoterekin batera, “odol garbikoak” zirela demostratu nahi izan zuten ondorengo urteetan, Erronkariko Batzarre eta alkateen kontrako auzi luzeen bidez. Bizilagun eta herritar ugari deklaratu zuten agoteen inguruko iritzia emateko.

105 urte zituen aiton batengana jo zuten lehenbizi, iraganean agote familia horiek izan

**Auzian, 105 urteko aiton batengana jo zuten lehenbizi, iraganean agote familia horiek izan zuten tratuaeren berri jakiteko**

Eskuineko irudian, Burgiko Erdi Aroko zubia; haren ondoan bizi zen Johan Acos agotea. Ezkerreko irudian, Erronkariko jantzi tradizionala; agoteek zinta horiz apaindu behar izaten zuten jantzia, bertako herritarrengandik bereizteko.

zuten tratuaeren berri jakin nahian. Vicente Borro izeneko agureak esan zuenez, liskarretan zebiltzan familia horiek beti izan zuten ibarreko ganadu eta luberriez gozatzeko aukera, eta gainera, iraganean armak hartu izan zituzten erreinua defendatzeko –agoteek debekatuta zuten gerrara joatea, hori nobleen edo aitonen-semeen lana omen—. Horretaz gain, elizan azkeneko bankuan esertzen zirela gogoratzen zen aitona Vicen-

te, baina “emakumeen aurretik”. Ibarreko Batzarraren izenean hitz egin zuten beste zenbait lekukok, aldiz, kontra-koa azaldu zuten. Hauen esanetan, familia horiek agoteak ziren eta ez zuten sekula Bardeetako zelaiez ez eta ganaduaz ere gozatzeko eskubiderik izan; gainera, herritik aparte bizi ziren eta debekatua zuten ogirik ukitzea etxetik kanpo. Azken finean “ez dute zergatik kexatu behar, eta prozesioetan ez dute zergatik besteekin batera joan behar, kalitate eta etorrera ezberdinekoak izanda...”, zioten herritarrek guztiz konbentziturak.

**Erronkariko jantzia, bazterketaren ikurra**

Erronkariri nortasuna dario. Dela euskalkiaren edo kulturen bereziagatik, dela geografian isolatuagatik, Ezka ibaia biltzen duen ibarra beti nabarmendu izan da historian zehar. Hain zuzen, Erronkariko Ordenantzek babes-tuta, erronkariarren aspaldiko jantziak kontserbatu dira, eta gaur egun ezagunak ditugu horregatik. Erronkaribarreko gizonek tunika edo kapa bat eramaten zuten soinean, kolore-



NOMADA



VASCOS Y TRAJES

## 'Apartheid' interesatua


AGOTEEZ hitz egiterakoan, kontu handia izan behar da topiko, uste ustel eta arrunkeriatan ez erortzeko. Asko esan da agoteei buruz, hasi herri sineskera zentzugabeetatik –usain txarrekoak zirela, hanka okerrak, kutsakorak, odola argiagoa zutela...– eta bukatu teoria antropologiko “zientifikoekin”: RH negatiboaren tasa baxuagoa zutela, ez zutela belarri gingilik, ile-hori eta haragi zuriko komunitate bat zela...

Agoteak era askotara deitu izan dira: Frantzian *cagot* ziren, Ipar Euskal Herrian *chrestiaak* (kristau berriak), Britainian *caqueau*... Hala ere, Nafarroako *agot* hitza egiten zaigu ezagunen, baina herrialde honetan *gaffo* izenez ere deitu izan zitzaizen agoteei, alegia, legendunak. Izan ere, legendar gaixotasunarekin (lepra) lotu izan dira betidanik baztertutako gizatalde hauek.

### Herri lurak eta lanesku merkea

Agoteak Euskal Herri osoan barneratu ziren, baina Iparraldean eta Nafarroan dugu haien berri batez ere. Nafarroako Erronkarin edo Larrasoaina herrixkan ezagun ziren agoteak, are ezagunago Arizkongo Bozate auzoan. Arizkongo agoteen oroimena erabat orokortu da euskal gizartean; Bozate da agoteen bizimodua ordezkatzen duen lekua, zalantzarik gabe. Izan ere, inguru horretan XX. mende hasiera arte iraun du agoteen bazterketak: aureskua dantzatzea debekatua zuten eta elizako ate txiki bati “agoteen atea” deitzen diote oraindik.

Arizkongo agoteak Ursuako jaunaren lurretan egiten zuten lan, jopuen moduan. Hain zuzen, gizatalde horren bazterketa azaltzeko, esklusio sozialaz gain, ekonomiko



JON ARTIANO

Ursuako jaunaren dorretxea Arizkunen (Nafarroa). Bozateko agoteek ursuatarren lurretan egiten zuten lan, jopuen baldintza berdinekin.

kontuan hartu behar dela diote adituek. Herri lur gehiago izan edo agoteen lanesku merketik etekin gehiago ateratzeko praktikatzan omen zen *apartheid* berezi hura.

### Santxotenaren museoa Bozaten

Gaur egun apenas dagoen agoteen bazterketaren zantzurik Arizkunen, aspaldiko kontuak besterik ez dira horiek. Hala ere, badago aukera iraganera itzultzeko; agoteen ondorengo den Xabier Santxotena eskultorearen museoa Gorrienea izeneko etxea aurkituko dugu eta bertan agote familia baten bizimodua ikus daiteke eskultorearen artelanen bidez ([www.santxotena.org](http://www.santxotena.org)).

tako zintaz apainduta. Baina zinta haiek bazuten beste funtziorik: bertakoak eta arrotzak bereiztea. Johan Acos kexu zen, alkateak emandako agindua medio, bere kapan soilik hori koloreko zintak eramatera behartu zutelako, arrotzen moduan. Agotea seinatzeko modu erraza zen hura. Beste zenbait lekutan egiten zen antzekorik: Iparraldean adibidez, zeinu gorri bat eramatera derrigortzen zituzten agoteak.

Gorteko Tribunalak Burgiko agoteen alde egin zuen. Baina sententziari muzin eginez, eliztarrek Johan Acos eta bere lagunak eserlekua erditik moztu zuten. Kasua erregeordearengaino iritsi zenean, hara zer esan zuen: “Hain dira lotsagabeak agote horiek, Erronkarin bertako bizilagunen pare jarri nahi izan dutela beren burua”. Hogei urteko gorabehera eta liskarren ondoren, alguazil bat bidali zuten Erronkarira, tribunalaren sententzia betearaztera, baina burumakur itzuli behar

izan zuen etorritako bide beretik, ez baitzioten kasu zipitzik egin Pirinioetako bailara hartan.

### Ehun urteko herentzia zitala

Erronkarin eta Euskal Herrian agoteen bazterketa pixkanaka desagertu egin zen, baina desberdin izatearen madarikazioak mende luzez jarraitu zien gizatalde horiei. Burgiko agoteen borroka pasatu eta ehun urte ingurura, 1744an, beste Johan Acos bat ibili zen tribunaletan bueltaka, aurrekoaren biloba, sarrailagilea bera ere. Antza, elizako atzealdera pasa zituzten berriz, eta bere aitona bezalaxe, “odol garbia” zuela demonstratu nahian ibili zen gure sarrailagilea. Lortu al zuen berdintasunaren atea irekitzea? Bazterketaren katea haustea? Hori ez dugu jakiterik; baina jokabide haren arrastoek orain gutxi arte iraun dute zenbait lekutan; herentzia zital baten azken katebegiak izan dira. ■

“Hain dira lotsagabeak agote horiek, Erronkarin bertako bizilagunen pare jarri nahi izan dutela beren burua”

ERREGEORDEA